

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

227. zenbakia

Data 2003-11-27

20757 orria

7 UDAL ADMINISTRAZIOA

USURBILGO UDALA

Eguneko Zentroko funtzionamendurako araudia. Behin betiko onespena.

USURBILGO UDALA

Iragarkia

Udalbatza Plenoak, 2003eko urriaren 28an, bestek beste, honako hau erabaki zuen:

Eguneko Zentroko Funtzionamendurako Araudia Behin Betikoz onartutzat kontsideratzea, kontutan harturik espedienteak hasieraz onartuz Udalbatzak 2003ko apirilaren 29an hartutako erabakia eta Udal Idazkariak luzaturiko ziurtapena, erabakiaren iragarkia jendeaurrean egon den bitartean alegaziorik ez dela aurkeztu adieraziz.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioaren bidea amaitzen du. Erabaki honen aurka, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietako Salan, iragarkia Aldizkari Ofizial batean argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epe barruan, bidezkoztat jo daitekeen beste edozein errekurtsio jartzeko eragozpenik gabe.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako Administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertzeke errekurtsioa aurkez daiteke ebazpena eman duen organoaren aurrean, argitaratzen den unetik hilabeteko epean.

EGUNEKO EGOITZAREN ZERBITZU ETA
FUNTZIONAMENDU ERREGELAMENDUA

ZENTROAREN ARAUDIA

I. ATALBURUA.XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua.Araudiaren xedea.

Araudi honen xedea, Usurbilgo udalerrian eskaintzen den Eguneko Zentroaren Zerbitzua arautzea da.

2. artikulua.Eguneko Zentroaren zerbitzuaren definizioa.

Autonomia pertsonal nahiko ez duelarik, famili giroan edo gizartean normaltasunez bizitzeko baliabideak dituen adineko jendeari egunaren barruan asistentzia osoa emateko zentroa da.

Eguneko Zentroa adineko gizon-emakume hauei zuzenduta dago: Beren egoera familiarra nahiz soziala edota ezgaitasun fisiko zein psikikoa dela bide, etxeko-laguntza zerbitzua baino harrera zabalagoa behar dutenei.

Eguneko Zentroaren zerbitzua beste aukera bat da egoitzetan sartzearen eta etxeko-laguntza zerbitzuaren aurrean, eta etxeko-laguntzak egun, duen lan areagotzearen osagarri izan daiteke.

3. artikulua. Helburuak.

3.1. Helburu orokorrak:

Ezgaitasun fisiko, psikiko edo sozial mailaren bat duten zerbitzu erabiltzaileei arreta integrala eskaintzea, errehabilitazio funtzional eta sozialerako egokia izango den tratamenduaren bidez euren ingurune sozialean eta familia-ingurunean egoteko bidea eginez.

3.2. Helburu espezifikoak:

3.2.1. Erabiltzailearentzat.

a) Bere gaitasunen arabera norberaren independentziari ahalik eta gehien eutsi edo/eta ahalik eta gehien berreskuratzea.

b) Harremanak eta gizarte-ekintzak garatzeko marko egoki bat eskaintzea.

3.2.2. Familiarentzat.

a) Araudi honetan aipatzen diren pertsona ezgaituak euren ingurunean mantentzen dituzten familiei laguntza soziala eta asistentziala eskaintzea.

4. artikulua. Gestioa.

Eguneko Zentroaren zerbitzua modu hauetako baten bidez kudeatuko da:

a) Udala zuzenean, edo

b) Zeharka, indarrean dagoen legediak ematen dituen hitzartzeko aukeretatik edozein bitartez.

II. ATALBURUA. ZERBITZUAREN ELEMENTTUAK ETA EZKUDUNTZAK.

5. artikulua. Gipuzkoako Foru Aldundiaren kompetentziak.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren kompetentziak ondorengoak izango dira:

a) Zerbitzua subentzionatzea, 2002ko apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretuaren arabera.

b) Zerbitzua hobetzen lagunduko duten estatistikak eta azterlanak egitea.

c) Udalez gaindituko mailan zerbitzua sustatu, koordinatu eta programatu.

6. artikulua. Usurbilgo Udalaren kompetentziak.

Usurbilgo Udalaren kompetentziak ondorengoak izango dira:

a) Udalerrian zerbitzu honi buruz dauden beharrak antzematea.

b) Erabiltzailearen perfila zehaztea.

c) Eskaria jaso, baloratu eta eskaerak erabakitzea.

- d) Erabiltzaileen ekarpena ekonomikorako irizpideak prestatu eta bakoitzarena erabakitzea.
- e) Zerbitzua eta gainerako prestazio eta bitartekoak koordinatzea.
- f) Erantzunik jaso ez duen eskaerari buruzko informazioa jasotzea.
- g) Zerbitzua martxan jartzeko eta funtzionamendurako behar den material guztia erostea.
- h) Zerbitzuaren ebaluaketa egitea.
- i) Itxaron zerrenda egitea.

7. artikulua. Gizarte-Langilearen eginkizunak

Udaleko Gizarte Langilearen eginkizunak ondorengoak dira:

- a) Gizarte-Langileek kontuan hartuko dituzte zerbitzu- eskatzailearen bizitza osatzen duten arlo guztiak (identifikazio-datuak, familiaren egoera, osasun egoera, ekonomikoa, etxebizitzari buruzkoa, harreman sozialak, kultur maila, etab.), eta zerbitzuaren helburuari forma zehatza emango dio, ondorengo funtzioen bidez:
- b) Erantzun beharreko kasuak antzeman, aztertu eta ezartzea.
- c) Zentroko langileei kasuaren berezitasunen berri ematea.
- d) Aldizkako harremana zainduekin edota familiarrekin edo pertsona arduradunekin, jasotzen duten zerbitzuari buruzko iritzia jasoz.
- e) Programa kontrolatu, betearazi eta gain begiratzea.
- f) Hitz hartutako zerbitzu(ar)en betetzen dela zaintzea.
- g) Zerbitzuaren prestazio hobeko bati zuzendutako hobekuntzei buruzko aldaketak proposatzea.
- h) Osasun eta Gizarte-Ongizate Batzordeari zerbitzuarekin zerikusi duten gertakari guztien berri ematea, eta halaber, bidezko proposamenak egitea, hark eztabaida eta onar ditzan.
- i) Eginaraz dakizkioken beste batzuk.
- j) Zentroan antzemandako beharrak informatzea.
- k) Usurbilgo Osasun zentroarekin bilerak egin eta koordinazio sistema bat mantentzea.
- l) Familiarrei erabiltzailearen egoerari eta bilakaerari buruzko informazioa ematea.

8. artikulua. Zaintzaileen eginkizunak.

Eguneko zentroko zaintzaileek bete beharreko eginkizunak hauek dira:

- a) Zerbitzu erabiltzaileak Zentrora iristen direnean harrera egitea eta euren arropa eta gauzez arduratzea.
- b) Janariaz, zainketa pertsonalaz, dietaren kontrolaz eta erizaindegiaren eskumenekoak ez diren botika eta antzekoak ematea arduratzeaz.
- c) Bere ardurapean dauden erabiltzaileak denbora guztian zaindu, lagundu eta eurengan arreta jartzea.

d)Erabiltzaile bakoitzak norbanakoen arretarako programako ekintzak egin ditzan ardura hartzea, bai arreta ludikoa, aisialdia, higiene pertsonala, mantenua.

e)Zentroko gainerako profesionalekin koordinatuta egotea, erabiltzaileek egin beharreko ekintzei buruz edo jaso behar duten arretari buruz.

f)Eguna amaitzean erabiltzaileak etxerako prestatzea.

g)Erabiltzaileengan antzemandako xehetasun garrantzitsu guztiak udaleko gizarte zerbitzuei jakinaraztea.

h)Erabiltzaile bakoitzaren jarraipen-orria betetzea.

i)Zerbitzuaren funtzionamendu onerako gainerako profesionalekin lankidetzan aritzea.

j)Aurrez aipatu ez arren, orokorrean lanpostuaren mailari dagokion beste edozein lan egitea, udaleko gizarte zerbitzuek hala eskatuz gero.

9. artikulua.Zerbitzuaren erabiltzailearen betekizunak.

Eguneko zentroko erabiltzaileak ondorengo betekizunak izango ditu:

a)Jasotzen duen zerbitzuagatik burutu beharreko ekarpen ekonomikoa, Usurbilgo Udalak finkatutako epeetan ordaintzea.

b)Zerbitzua onartu zeneko momentuan baloratu zen egoera batean, hala nola, ekonomikoan, balio ezintasunean, elkarbizitzan, gertatutako edozein aldaketa, 10 eguneko epearen barruan udaleko gizarte zerbitzuei jakinaraztea.

c)Senideekin bizi diren edo etxez etxeko laguntza duten erabiltzaileak garbituta eta kanpoko itxura txukunduta joan beharko dira zentrora. Familiak garbitu eta txukundu ezin badu, gizarte zerbitzuek aztertuko lukete kasua.

d)Erabiltzen diren zentroko altzari, tresna eta gainontzekoak norberarenak bezala zaintzea.

e)Zentroan aldatzeko arropak edukitzea.

f)Erabiltzailea ez bada zentrorra etorri behar, udaleko gizarte zerbitzuetan horren berri eman eta justifikatzea. Zentrorra bueltatzeko kasuetan ere aurrez jakinaraztea.

g)Erabiltzaileak zentroan dagoen bitartean hartu behar dituen botikak ekartzea.

h)Zerbitzuaren erabiltzailea zentroaren zerbitzu ordutan mediku, espezialista edo osasun etxera joan beharko balitz, familiak lagunduko dio.

i)Zerbitzurako onartutako barne araudia onartu eta betetzea.

10. artikulua.Garbiketa zerbitzuaren funtzioak.

Garbiketa zerbitzuak bete beharreko funtzioa ondorengo da:

a)Udalarekin sinatutako kontratuan finkatutako irizpideak jarraituz zentroa garbitzea.

11 Artikulua.Onuradunek bete behar dituzten baldintzak.

a)Zerbitzua jaso ahal izango dute, zerbitzua eskatu aurretik Usurbilen gutxienez sei hilabete erroldatua egotea eta jarraian zehazten diren baldintzak betetzen dituzten pertsonak:

b)60 urte edo gehiago izatea.

c)Eguneroko bizitzako ekintzetarako autonomia murriztua izatea, bere egoera fisiko edo psikikoan hutsuneak dituelako.

d)Eskatzaileak Sakontzen balorazioan 3tik gorako ezgaitasun gradua eduki beharko du, edo, horrela izan ezean, egokitasunaren aldeko txosten bat izan beharko da, Udaleko Gizarte Zerbitzuen Departamentuko zerbitzu teknikoek egina eta Ongizate eta Osasun Batzordearen oneritzia duena eta Eguneko zentroak eskaintzen dituen zerbitzuak onuradunaren beharrak betetzen baditu onartua izango da.

e)Infekzio edo gaixotasun kutsagarriarik edo ospitaleko arreta behar duen gaixotasun klinikorik ez izatea.

f)Zentroan elkarbizitza normala izatea eragotziko duen buruko gaixotasun larriarik ez izatea.

g)Oheratua ez egotea.

Aipatutako baldintzen egoera desberdinean aurkitzen diren pertsonen ere, zerbitzua erabili ahal izango dute baldin eta udaleko gizarte zerbitzuek egokitzat baloratzen badute.

Zentroan plazarik libre balego, zerbitzua Usurbildik kanpo erroldatua dauden pertsonen ere erabili ahal izango dute, beti ere atal honetako goiko paragrafotan jasotako baldintzak betetzen badituzte eta euren edo euren ordezkariak kasu hauetarako finkatutako prezioa ordaintzen badute.

12. artikulua.Bajarako arrazoiak.

Eguneko zentroan baja emateko arrazoiak hauek izango dira:

a)Erabiltzailearen borondatez, espreski hala adierazita.

b)Zentroko gainerako erabiltzaileekin elkar bizi ezina, gizarte zerbitzuek egiatuta.

c)Ezgaitasun mailan aldaketa izatea.

d)Beste zerbitzu batera eramatea.

e)Beste udalerrri batera joatea.

f)Dagokion ekarpena ekonomikoa ez egitea. Arrazoi horrengatik zerbitzua kendu arren, lehendik Udalarekin duen zorra ordaindu egin beharko du.

g)Heriotza.

h)Justifikatu gabe, urtean 30 egun baino gehiagotan zentrora ez joatea.

i)Zerbitzu erabiltzaileari gertatutako edozein egoeraren aldaketa ez jakinaraztea.

j)Zentrorako onartutako barne araudia ez betetzea.

13. artikulua.Orduetgia.

Erabiltzaileentzako atentzioa astelehenetik ostiralera eskainiko da, jaiegunetan izan ezik, udalak zehaztutako ordutegian.

III. ATALBURUA.ELEMENTU OBJETIBOAK.

14. artikulua.Prestazio edo zerbitzuak.

Eguneko egonaldietarako zentroan eskainiko diren prestazio edo zerbitzuak honakoak izango dira:

1.Asistentzialak:

a)Higiene pertsonala: Ahal dela, zentroaren erabiltzailea garbituta etorriko da etxetik. Etxean egin ezin dutenen kasuan edo/eta zentroan dagoen bitartean gerta daitezzen premia puntualetan eskainiko da zentroan garbitasun pertsonalaren zerbitzua. Higiene pertsonala etxean egitea ezinezkoa denean, Udaleko Gizarte Zerbitzuetan baloratuko da, kasu bakoitzari begiratuta.

b)Mantenua; Mantenuaren barruan eguerdiko otordua eta askaria sartzen dira.

c)Garraioa; Etxetik Zentrorako bidaia eta itzulerakoa hartzen ditu. Zerbitzu hau behar ez duten erabiltzaileek ez dute erabiliko.

2.Okupazional, Aisialdia:

a)Ardura okupazional eta hezigarria, bere osasun fisiko eta psikikoaren egoera mantendu eta hobetzeko.

b)Tratatzen duen medikuak agindutako botiken ingestio eta kontrolaren ardura. Osasun prestakuntzarik gabe egin daitezkeen sendaketak sartzen dira.

c)Erabiltzaileen zaintza pertsonala, elikagaiak hartzeko.

d)Taldea-zaintza. Honek berekin darama egunero iharduera programa bat egitea, banakakoa eta taldekoa, erabiltzailearen egoera fisikoa eta adimenekoa kontuan hartuta.

e)Salbuespenez eta iharduera bereziren bat (ibilaldiak eta antzekoak) antolatzen denean zerbitzua Eguneko Zentrotik kanpora prestatu ahal izango da.

f)Arreta soziala, banakako lan soziala, taldeko lan soziala.

3.Zereginetatik baztertuak.

Ondoko zereginak zerbitzutik kanpo uzten dira:

a)Ematen duen pertsonaren aldetik nolabaiteko ezaguera edo espezializazio maila eskatzen duen kontuz ibiltzeko botika ematea.

b)Eguneko Zentrotik onuraduna bere etxera edo beste leku batera eraman edo laguntzea.

c)Edota, gizarte-laguntzailearen txostenaren arabera, Udalak bidezkoztat jo dezakeen besteren bat.

15. artikulua.Zerbitzua erabiltzeko ihardunbidea.

Zerbitzuaren prestazioak erabiltzeko onarpenak ondoko prozedura jarraituko du:

1.Zerbitzuaren eskaera.

2.Txosten soziala

3.Osasun eta Gizarte-ongizate Batzordearen proposamena

4.Gobernu batzordeko ebazpena.

1) Zerbitzuaren eskaera.

Eskaerak, Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Departamentuan egingo dira Bertan, eskaera-eredu normalizatua emango zaie eta eskatutako dokumentazioarekin batera, aipaturiko departamentuan aurkeztu beharko da. Eskaera ere, Udaletxeko Erregistro Nagusian aurkeztu ahal izango da.

1.1. Eskatzaileak ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko du:

a) Eskaera-orria.

b) NANaren fotokopia.

c) Famili medikuaren txostena, edo bere kasuan, txosten klinikoa osasun egoerari edo akatsari buruzkoa. Txosten horretan jasoko dira diagnostikoen zerrenda, dietarik egokiena eta farmakologi-tratamendua, horiek eman eta beteko direla segurtatzeko.

d) Aurrezki libretak, k/k, balio higigarriak, e.a.-en kapitalaren eta urteko interesen egiaztatzeriak, banku erakunde emanak.

e) Diru-sarrera eta ondasun guztien ziurtagiria (soldata, pentsio orri, eta abar).

f) Azken errenta-aitorpenaren fotokopia edota, horrelakorik ezean, aitortu behar ez dueneko Haziendaren ziurtagiria. Elkarbizitze unitatea azkeneko 4 urteetan aurkeztutako PFEZ aitorpenean azaltzen diren kideek osatuko dute.

g) Foru Haziendak luzatutako ondasun-ziurtagiria.

h) Azken 4 urteetan izandako transmisioen ziurtagiria.

i) Udalak beharrezkotzat jotzen duen beste edozein dokumentazioa.

1.2. Horretaz gain, menpekotasuna duten eskatzaileak 2002ko apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretuan ezarritako dokumentazioa ere aurkeztu beharko dute, alegia:

a) Famili unitateko kide guztien nortasun agiriaren fotokopia.

b) Eskatzailearen eta elkarbizitzako unitateko kide guztien Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken aitortpenaren fotokopia eta, horrela denean, Ondarearen gaineko Zergarena. Behartuta egonez gero, pentsio, prestazio, pentsio plan edo bestelako edozein irabazi iturrien zurigarriak ekarri behar dira ematen dituen organismoak eginda, eta ondasun higikor eta higiezin zinpeko aitortpena.

Eskatzaileak ez badu nahi bere egoera baloratzerik edota ez badu behar bezala zurrizten, pentsatuko dugu eskatzaileak uko egiten diola 1) sartzeko baremoan bere egoera ekonomikoa kontuan hartzeari eta 2) ezarritako hobariei eta, berez, plazaren gastu osoa ordaintzera behartuta egongo da, eta hori nahitaez dokumentu batean jarri beharko du.

Udalerrietako oinarrizko gizarte zerbitzuek eta Gizartekintza Departamentuak beharkizunak betetzeari buruzko informazioa ofizioz eska dezakete, behar bezala egiaztatuta ez direnean geratu.

Dena dela, eskatzaileak baimena emango die oinarrizko gizarte zerbitzuei eta Gizartekintza Departamentuari berari buruzko datuak egiaztatu edo eskatzeko egin behar dituzten kudeaketak egiteko. Eskatzaileak arautegi honetan ezarritako beharkizunak betetzen dituela egiaztatzeko bakarrik izan behar dute datu horiek eta, horrela bada, beharkizunak eta egoitzako gastua ordaintzeko baliabide ekonomikoak dituela egiaztatzeko.

Gezurrezko datuak eman edo ezkutatu egiten badira, eguneko zentro bateko eskatzaile izaera galdu egingo du, horrek ekar diezazkiokeen erantzukizunak alde batera utzi gabe.

2)Txosten soziala.

Udaleko Gizarte-Ongizate Zerbitzuak aztertuko du eskaera bakoitza, eta dagokion txosten soziala egingo du, planteatutako kasuari irtenbide egokiena proposatuz.

3)Osasun eta Gizarte-Ongizate Batzordearen proposamena.

Eskatzailearen dokumentazioa jaso eta dagokion txosten soziala egin ondoren, Osasun eta Gizarte-Ongizate Batzordeak eskaera onartzea ala ez onartzea proposatuko du.

4)Ebazpena.

Alkatetzak edo, bere kasuan, Gobernu Batzordeak aztertuko du Osasun eta Gizarte-Ongizate Batzordearen proposamena, eta hartutako erabakia eskatzaileari jakinaraziko dio.

Baldin eta eskaera egin zenetik hiru hilabete igarota akordiorik hartu ez bada, hori ukatutzat ulertuko da.

16. artikulua.Zerbitzua ukatzea.

Zerbitzuaren prestazioa ukatu ahal izango da ondorengo arrazoietakoa batengatik:

a)Eskatutako baldintzak betetzen ez direlako.

b)Beste erakunde edo zerbitzu baten ardura delako.

c)Behar bezala oinarritutako beste edozein arrazoiengatik. Kasu honetan administrazioaren erabakiaren arrazoiak jakinaraziko zaizkio interesatuari, 30/92 legearen 54. atalean xedatutakoaren arabera.

17. Artikulua.Itxaron zerrenda.

Aurkeztutako behar guztiei erantzuteko adinako plaza kopururik ez dagoelako eskaera batzuk erantzunik gabe geratuko balira, itxaron zerrenda bat osatuko litzateke. Itxaron zerrenda osatzeko ondorengo puntuazioa erabiliko da:

a)Ez du zaintzarik behar: 0 puntu.

b)Edozein gradutan (Txikia, erdi mailakoa, handia) zaintza behar duen adineko pertsona eta beste batzuek egoki zainduta dagoena.: 2 puntu.

c)Tarteka laguntza behar duen pertsona, baina laguntzarik ez duena edo berarekin bizi diren lagunek eta/edo beste batzuek laguntza eskas bat ematen diotena: 4 puntu.

c)Laguntza txikia behar duen pertsona, baina oso laguntza eskasa duena eta erdi mailako zaintza (Egunekoa edo eguneko zati batekoa), baina laguntzarik ez edo oso eskasa duena: 6 puntu.

e)Erdi mailako laguntza behar duen pertsona, baina laguntza oso eskasa duena eta maila handiko zaintza behar duen pertsona eta egunez laguntza gutxi duena: 8 puntu.

f)Zaintza handia (24 ordukoa) behar duen pertsona, behar duen laguntzarik ez edo oso eskasa duena eta, gainera, ezin dezakeena eduki: 10 puntu.

Puntuazio bereko kasuen artean, eskaeraren antzintasuna erabakigarria izango da kasu bakoitzaren lehentasuna erabakitzeko.

18. artikulua. Eskaera berriz egitea.

Laguntza eskuratzeko bete beharreko baldintzetakoren bat betetzen ez dutelako ezetza jaso duten eskaerak ez dira berriz aztertuko eskatzailearen egoera nabarmen aldatu eta hori frogatu arte.

19. artikulua. Zerbitzuaren kontrola.

Udalak gizarte-langilearen bidez egingo du zerbitzuaren kontrola, jarraipena eta koordinazioa. Gizarte-langileak arduratuko da zerbitzuaren prestazioaz, eta zentroko programaren betetze kualitatibo zein kuantitatiboa gainbegiratuko du, eta baita onuradun bakoitzarena ere, eta halaber, zerbitzua prestatzen duen enpresarekin harreman-pertsona bera izango da.

IV. ATALBURUA. FINANTZAKETA.

20. artikulua. Finantzaketa.

Zerbitzuaren urteko finantzaketa jarraian adierazten diren iturrien bidez egingo da:

1. Foru Aldundiaren dirulaguntza.

2. Udalaren ekarpena.

3. Onuradunaren ekarpena.

21. artikulua. Onuradunaren ekarpena.

Usurbilgo Udalak, organo eskudunaren bitartez, urtero ezarriko ditu Eguneko Zentroko zerbitzuaren tasak edo prezioak.

22. artikulua. Tarifa aplikatzeko arauak.

Erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko orduan, balorazioko osagai hauek hartuko dira kontuan: Errenta, ondarea eta famili unitateko edo, bere kasuan, elkarbizitza unitateko kide kopurua.

Errentatzat jotzen da famili unitatearen diru sarrera guztiek osatzen dutena, diru iturriak honako hauek izanik:

a) Lan etekinak, horren barne egonik pentsioak eta gizarte aurreikuspeneko prestazioak, edozein erregimen dutela ere.

b) Kapital higigarri zein higiezinaren etekinak.

c) Enpresa edo lanbide jardueren etekinak.

Kapital higiezintzat jotzen da landa eta hiri izaerako ondasunek osatzen dutena. Honen katastro errentaren gaineko % 3ko portzentaia kontutan hartuko da (Ohiko etxebizitza ezik).

Ohiko etxebizitzat jotzen da erabiltzaileak ohiko bizileku daukan bere titularitateko etxea.

Famili unitatetzat jotzen da honako hauek osatzen dutena: Ezkontideek eta beren kargupeko adingabe eta ezinduek eta judizialki ezinduak diren eta guraso-aginte luzatu edo birgaitupean dauden adin nagusikoek.

Elkarbizitzako unitatetzat jotzen da ohiko bizilekuan elkarrekin bizi diren guztiek osatutakoa.

Famili unitatearen dirusarrerak kontutan hartuko dira eskatzailea unitatearen Pertsona Fisikoen Errenta Aitorpenaren kontutan hartzen ez dutenean.

Elkarbizitzako unitatearen dirusarrerak kontutan hartuko dira eskatzailea unitatearen Pertsona Fisikoen Errenta Aitorpenean menpekotasuna dun pertsona bezala aitortzen badute. Familia-unitatea azkeneko 4 urteetan aurkeztutako PFEZ aitorpenean azaltzen diren kideek osatuko dute.

Diru ahalmenari buruzko datuei buruz gezurrak esateak edo haiek ezkutatzek zerbitzuaren prestazioa aldi baterako edo behin betiko etetea ekar dezakete, beste erantzukizunetik at.

23. artikulua. Zerbitzuaren finantzaketa.

Zerbitzuaren kostua honela berdinduko da:

a. Libreki erabiltzeko diru kopurua:

Erabiltzaileak Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren %100 izango du libreki erabiltzeko, famili unitatea berak bakarrik osatzen duenean. Famili unitatea bat baino gehiagoz osatuta baldin badago, bigarrengoarengatik LGSren %40 erantsiko da eta LGSren %30, berriz, gainerakoengatik.

b. Famili unitatearen hileko errenta erabilgarria:

Famili unitatearen hileko errenta erabilgarria ateratzeko, erabakita dauden zerbitzuko kontzeptuen gutzizko zenbatekoari libreki erabiltzeko zenbatekoa kenduko zaio. Aparteko gastuak ere ken daitezke, behar bezala zurriz badira eta Batzordeak onartzen baditu.

c. Erabiltzailearen diru ekarpenak:

—Menpekotasuna duten erabiltzaileak:

2002ko apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretuan garatzen duten irizpideen arabera ordainduko dute.

—Besteak:

Famili unitatearen errenta erabaki ondoren, zerbitzuaren hileko prezioa ondorengo baremoaren arabera izango da:

Famili unitatearen Erabiltzaileen irabaziak, hileko ekarpena

% 100 LGS-ren % 100 eraino %3

LGS-ren %101tik - %125 eraino %8

LGS-ren %126tik - %150 eraino %15

LGS-ren %151tik - %175 eraino %24

LGS-ren %176tik - %200 eraino %35

LGS-ren %201tik - %225 eraino %48

LGS-ren %226tik - %250 eraino %61

LGS-ren %251tik - %275 eraino %74

LGS-ren %276tik - %300 eraino %87

LGSren %300 a baino gehiago %100

Erabiltzaileak nahiko diru baliabiderik ez duela zurituz gero, diru ekarpena egitetik salbuetsiko zaio.

24. artikulua. Oporrak, ingresoak.

Onuraduna ingesatuta dagoenean edota familiarekin oporreta joaten denean, Eguneko Zentroko plaza gordetzeko ondorengo aportazioak egin beharko ditu:

a) Osasun-zentru batean ingesatu delako: Erabiltzaileak ez du ezer ordaindu beharko ingreso bi hilabetetara iristen ez bada. Ingreso bi hilabete baino luzeagoa bada, egoeraren baloraketa egin beharko da.

b) Oporrak hartu dituelako (gutxienez aste 1 eta gehienez hilabete 1). Erabiltzaileak bere ekarpenaren %85a ordaindu beharko du. Kasu honetan, dagokion jakinarazpen idatzia luzatu behar dio zentroko zuzendaritzari edo Gizarte Zerbitzuetako Departamentuari hilabete 1 lehenago.

25. artikulua. Ekarpenen urteko berrikuspena.

Urtero berrikusiko da erabiltzaileen ekarpena, haien errenta eguneratuak doitzearren.

26. artikulua.

Araudi honetan aurre ikusi ez den guztian, Herri-Administrazioari aplikatzekoa den eta indarrean dagoen arautegiak dioena bete beharko da. Gizarte Ongizate Batzordeak ahalmena izango du araudi hau aplikatzean sor litezkeen arazoan interpretazioa Alkatetzari proposatzeko.

Usurbil, 2003ko urriaren 29a.—Alkatea.

(3388) (11898)